

Juan Aizpitarte –eskuinean– Urko Galdona artistarekin Angelun, *Belle Epoque* obraren aldamenean. ARTXIBOA

Juan Aizpitarte artista donostiarrak Angelura eraman du Kontxako baranda, Arte Garaikidearen Biurtekora; Cavaliers eta La Barre hondartzen arteko berdegunean erakutsi du bere artelan ausart eta dibertigarria.

# Hiriaren sasi-enbaxadorea, Angelun

NEREA LIZARRALDE

Kontxako baranda puri-purian dago. Sitgeseko Udalak barandaren zati bat erosi berri du, eta hango *San Sebastia* hondartzan jarriko duela iragarri du. Zeren truke? Bada, Donostia 2016an Europako Kultur Hiriburu izateko hautagaitza babestearen truke. Hau ez da izango, ordea, Donostiako Belle Epoque garaiaren erakusgarri handienetakoa den baranda hiritik ateratzen den lehen aldia. Juan Aizpitarte artista donostiarrak Angeluko Arte Garaikidearen Biurtekora eraman baitu. Sortzaile gazteak, baina, bertsio original eta berritzailea erakutsi du bertan. Ez du Kontxako barandaren erreplika egin, haratago iritsi nahi izan du.

Aizpitartek Angeluko Biurtekoan parte hartzeko gonbitea jaso zuen eta bertara joan zen proiektuan lanean hasteko. Izan ere, horregatik da berezia Angeluko atari zabaleko erakusketa, artistek *in situ* landu behar dutelako obraren ideia. Artista batek paisaiari zer eman diezaiokeen pentsatu behar dute. Aizpitartek ondo aztertu zuen Lapurdiko kostaldea. Cavaliers eta La Barre hondartzen artean dagoen berdegune batean lan egitea egokitu zitzaion: «Bi astean behin belarra mozten zuten makinak pasatzen ziren zelai hartatik. Leku txukun-txukuna da».

Lau kilometro eta erdiko luzera duten Angeluko hondartzen gunea ere ederki ezagutzen du gazteak: «Zibilizatua, naturala eta basatia da, aldi berean. Horrela ikusten dut Angelu, eta hori da, hain zuzen, bere xarma. Txikitatik irudipen bera izan dut. Aisialdirako gunea da, surfa egin daiteke, golfa, hondartzara joan... Dena oso perfektua da, oso txukun dago dena. Guztiok esan ohi dugu espazio publikoa oso ondo zaintzen dutela Frantzia aldean. Ukitu futurista du nolabait, baita utopikoa ere».

## Espazio natural eta zibilizatuen arteko zatiketak

Lapurdiko kostaldearen ezaugarrien artean zonalde natural basati eta zibilizatuen arteko kontrasteak bereganatu zuen Aizpitarteren arreta: «Ondo moztutako zelaiak daude, baina badira espazio natural eta basatiagoak ere. Zonalde natural eta ordenatuen artean dauden zatiketak hartu nituen kontuan. Muga horiei eman nien garrantzia. Mota guztietakoak daude, hesi dotore eta handiak, Ikea edo Aki estiloko hesi txikiagoak...».

Orduan bururatu zitzaion *Belle Epoque* izeneko proiektu bitxi eta deigarria garatu ahal izateko ideia nagusia eta oinarria: «Mugekin zerikusia duen zein elementu eraman dezaket Donostiatik Angelura? Hiriaren ikono garbi-garbia, Kontxako baranda hartzea erabaki nuen. Apaindura edo ikono ez ezik, hondartza eta hiriaren arteko muga ere bada. Hau da, natura eta zibilizazioaren arteko muga. Ez dut, alabaina, kopia hutsa egin, sinplifikatu egin behar izan dut. Oinarritik jaitsi, pibotetik kendu eta obretako hesi bihurtu nuen. Horrela artelan eramangarriago bat egitea lortu nuen».

## Hesia, natura babesteko

Aizpitarteren estrategia honakoa izan zen: Kontxako barandaren itxurako obretako hesi haiek belarraren erdian kokatzea. Itxitura edo esparru horren barruko gunea babestea zen bere asmoa: «Lorazainak ezingo dira eremu horretan sartu eta beraz esparru hori basati bihurtuko da. Hasieran segurtasunerako sortua izan zen objektuak eta denborarekin hiritartasunaren sinbolo bihurtu denak, gune basatia sortuko du bere baitan. Kontraesan bitxia da. Nola da posible hermetikoa den zerbaitek basatia dena babestea? Gizakiak natura instrumentalizatu egiten du, eta natural uzteko modu bakarra ixtea da».

Hasieran hexagono eta pentagono itxurako forma diseinatzen hasi zen hesiekin: «Kutsu militarra lor nezakeen horrela. Are ironikoagoa izan zitekeen, baina azkenean bi forma horien arteko batuketa egin nuen, 11 aldekoa».

Aurrekontuak, baina, gora egin zuen. Orduan, hainbat proiektu artistikotan lankide izan duen Nekane Aranburuk Eibarko Alfa Arte lantegiaz hitz egin zion: «Bisitan joan nintzen tailerrera. Izugarria da. Artista baten lantegiaren ideia formatu erraldoian ikustea bezalakoa izan zen hura. Ideiak bor-bor hasi ziren hor barruan nengoenean. Ohikoena muga teknikoetan pentsatzea da, baina han...dena da posible. Ontzi estralurtarra egin nahi baduzu, egin dezakezu. Gainera zortea izan nuen. Izan ere, Alfa Arten aldaketa egin berri dute zuzendaritzan, eta enpresaren irudia aldatzen lagunduko nielakoan, nire eskulturaren aldeko apustua egin zuten. Koprodukzioa izan da, horrela gastuei aurre egin ahal izan diet».



Burdinezkoa da pieza eta txuriz pintatuta dago. ARTXIBOA

Burdinezkoa eta txuria. Neurriak: 8 metroko diametroa eta 28 metroko perimetroa. Halakoa da Aizpitarteren *Belle Epoque*a: «Orain, Donostia 2016 ekimena dela eta *Donostia Txikia* izena ere jarri diote. Hiriaren sasi-enbaxadorea, da nolabait. Gainera, Sitgesek barandaren zati bat erosi du eta gaurkotasunezko kontu bihurtu da hau guztia. Ez dakit... gauza hauen artean paralelismo bitxia dagoela pentsatzen dut. Hain justu, ni bertako ikonoekin ari naiz lanean eta horrelako kontuetan interes handia daukat. Beste hiriak ere ikonoak sortzen ari dira kanpora eramateko, Bilbok Guggenheim-ekin egin duen bezala».

## Arte publikoan lan egiteko irrikitan

Alfa Artek artistekin denbora luzez egin duen lana Okendo kultur etxean dago ikusgai. Tartean, jakina, Aizpitarteren obra: «Txistea bezalakoa da nire obra Oteiza, Remigio Mendiburu edo Jose Zugastirenaren artean ikustea. Euren interesak formalak dira, kontzeptualak... Nire kezka nagusia ez da materia, testuingurua baizik. Hain egunerokoak diren eta hain etxekoak diren objektuak gustatzen zaizkit. Zailagoak dira errekonozitzeko, begi bistan izanda ere... Egiletasuna, obra eta ikonoaren bakartasuna, umorea eta jolasa... Hauek dira eskultura publikoaren inguruan dauzkadan ideiak».

Arte publikoan lanean hasteko irrikitan dagoela azaldu du egile gazteak: «Museoetan obrek oasi itxura hartzen dute, isolatuta geratzen dira. Kalean, aldiz, aurkakoa gertatzen da. Hainbat faktore izan behar dituzu kontuan: Jendea, segurtasuna, mugimendua, zirkulazioa... Kontua da obra bat ezin dela edonon jarri. Ondo aztertu behar da non kokatu behar den. Espazio publikoa lantzerakoan sentsibilitate berezia behar dugu. Ez dugu forma bat leku batera eraman behar, alderantzizkoa da. Leku horretarako forma batean pentsatu behar dugu. Lekuan bertan, gainera, arkitekto eta urbanistek egiten duten moduan. Horregatik, monumentuaren ideia kendu behar dugu burutik. Ingurunearekin sintonian dauden obrak sortu behar ditugu».

**«Apaindura eta ikono ez ezik, hondartza eta hiriaren arteko muga ere bada Kontxako baranda»**

**«Grazia egiten dit Donostia Biarritzen estetika imitatzen ikustea»**

JUAN AIZPITARTE
Artista

Etorkizuneko erronken inguruan ere hitz egin du donostiarrak: «Biribilgune batean zerbait egitea erronka izango litzateke, biribilguneko eskultura publikoa. Bai, polita izango litzateke. Antiguako biribilgunean dagoen Nagelen eskulturak esaterako hautsak harrotu zituen. Ez dakit, nik palmondo edo oasi bat egingo nuke...nik zer dakit! Trafikoa, zirkulazioa...hori guztia kontuan hartu eta umore dosi apur bat ipiniko nioke. Gaurkotasunezko baloreekin jolastuko nuke. Ez baitut, monumentuetan sinisten. Paisaiek aldakorrak izan behar dute, guztia delako iragankorra. Franco edo Fuhrer baten estatuak, noiz edo noiz, erori egiten dira».

## Artearen etorkizuna, kalean

Artearen etorkizuna argi ikusten du Aizpitartek: «Hiritarren parte hartzean dago. Artea kalean egingo dugu eta museoak fondoak gordetzeko besterik ez dira izango. Hiritarren eskubidea eta betebeharra da euren paisaian parte hartu ahal izatea. Ez dakit zein izango den formula, baina nik hala ikusten dut. Karisma duen hiri batek bere azalean erakusten ditu hiritarren kezkak. Berlin datorkit burura, adibidez».

## Umorea eta satira

Aizpitarteren obrak ere badu umore eta satira kutsua. *Belle Epoque*-k ezkutuko asmo bat duela aitortu du: «Oraindik ere zerbait arraroa daukagu frantsesekin. Badago oraindik frantsesek hiria erre zuten ustea duen jendea, eta hori ez zen horrela izan. Gainera grazia egiten dit Donostia Biarritzen estetika imitatzen ikustea: *Txu-txu* trena, karrusela... Kontxako baranda eramatea Angelu eta Donostiaren arteko truke bat izan da. Haiek guri eman digutena eskertzeko balio du, hein batean. Politikariek ez dute lortu frantsesei diegun antipatiarekin bukatzea, horrelako jarduera sinbolikoak behar ditugu».

Mugaz gaindikotasuna eta euro hiriaren diskurtsoa ere kontuan hartu ditu Aizpitartek: «Gure ikonoa modernista da, txuria, perfektua, Haien estetikaren gisakoa. Baranda Frantziara eramatea kostaldeak batzen saiatzea bezalakoa izan da».





Eibarko Alfa arte lantegian sortu zuen Aizpitartek *Belle Epoque* obra. ARTXIBOA



# Industria, artearen zerbitzura

**ERAKUSKETA** • Dora Salazar, Jose Ramon Anda, Baroja Collet, Remigio Mendiburu, Basterretxea... Hainbat artistek industriara jo dute euren lanak egia bihurtu ahal izateko. Eibarko Alfa Arte lantegiak eskarmentu handia du artelanen erreplikak eta kopiak egiten. Lantegi honetan sortu zuten, esaterako, Pasealeku Berrian dagoen Oteizaren eskultura handia. Brontzea, aluminioa edo altzairua lantzen dituzte eta azken urteotan teknika berritzaileak lortu dituzte, artisten irudimenak mugarik izan ez dezan. Okendo kultur etxean artista eta industriaren arteko elkarlanaren fruituak ikus daitezke. N.L.